



FAKULTATEKO ESPAZIOAK ETA LOKALAK ALOKATZEKO

UPV/EHUko kidea izan edo ez izan, fakultateko espazioak edo lokalak erabilera partikularrerako eta/edo zure lanpostuarekin zerikusirik ez duen beste zerbaiterako erreserbatu beharra baduzu, ikastegiko ikasgelen eta bestelako espazioen alokairua eskatu ahal duzu. Fakultateko lokalak webgunean dagoen formularioa bete eta igorri (gestor.aulas.fcee@ehu.eus) erreserbatuko dira erreserba eskaeran jarritako eguna baino astebete lehenago, gutxienez, eginda. Formularioarekin batera konpromiso agiria erantsi beharko da, jardueraren arduraduna den pertsonak fisikoak sinatuta edo, kasuan kasu, pertsona juridikoaren legezko ordezkariak izenpetuta. Espazioak erabiltzen uzteko irizpideak kontsultatu ahal dira, baita erabiltzailearen betebeharrak ere, Bizkaiko Campuseko Kanpoko eta Barneko Guneak Erabiltzeko Araudian. Tarifak ere ikusi ahal dira bertan. Tarifaren barruan espazioaren alokairua bakarrik dago. Zenbateko horri, kasuan kasu, kostu hauek gehitu beharko zaizkio: garbiketa, lokala, zerbitzua emateko behar diren langileak (atezaina, ikus-entzunezkoen teknikaria, etab.). Fakultateak eskatutako erreserba ontzat hartu eta eskatzailea administrazio publiko bat ez bada, fidantza emango den UPV/EHUren kontuan sartu beharko da. Edonola ere, fidantza sartu egin beharko da jarduera hasteko eguna baino astebete lehenago, gutxienez. Fidantza (alokairuaren kostu osoaren %25a, BEZ gabe) ordu kopuruaren kalkuluan oinarrituko da, eta hori alokairuaren kontratu hasieran egingo da.

UPV/EHUko langilea edo ikaslea ez bazara, eta ikasgelako ordenagailua edo informatika geletako ordenagailuak behar badituzu, behin-behineko erabiltzailea eta pasahitza beharko dituzu, ikastegiari eskatu behako dizkiozunak.

Espazioak erabiltzen amaituta, eta erabilitakoan egoera onean gelditu direla egiaztatuta, fidantza berreskuratuko da. Era berean, benetako datuak zehaztuko dira, hau da, zenbat ordu izan eta zenbat espazio erabili diren zehaztuko da faktura egiteko.

Informazio gehiago: ekonomia.fak.gelak.kudeatzailea@ehu.eus.

Harremanetarako telefonoa: 94 601 3687